



Erreñusolo etxebizitza

Aldarak:
Ahozkoa:



43° 11' 9"

2° 35' 45"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

XX. mende amaieran eraikitako txaleta da, *Sarriugarte* (**Ikus Sarriugarte**) baserriaren lurretan jasoa. Eraikin berria izendatzeko, so-roaren izena hartu dute, *Erreñusolo* alegia.

Isuri biko teilatua badauka ere, fatxada modu asimetrikoan du antolatua. Solairu bakarra eta ganbaradun etxea da. Azken hau argitzen da bi leihoren bitartez, gailurraren arabera jarriak. Beheko baoak, berriz, guztiz alde batera

dauzka. Atea bat dator etxearen ardatzarekin, baina eskuma aldea indartsuagoa da leihoci dagokienez. Horri laguntzen dio, gainera, fatxadari paralelo egin dioten aterpeak, ez baitu etxea alderik alde babesten. Hormak luzituta ditu eta harria erabili dute zokaloa egiteko, kantalak indartzeko eta ganbarako leihoen ertzak dotoretzeko.

toponimia

Leku izen honen osagaiak argiak badira ere, erreinu eta solo, azalpena iluna da guretzat.